

114-583
MITXELENA

Erref. kodea: LAF-108-910

Izenburua: Gutuneria: MITXELENA,
Koldo . [Ikus gainera: 104-583]



UNIVERSIDAD DE SALAMANCA

FACULTAD DE FILOSOFIA Y LETRAS

APARTADO 19 - TELÉF. 21 74 07

Seminario de Filología Clásica

A. 10

1974-X-15.

Adiskide jauna,

Ez duzu gehiegizko argirik aterako
nigandik, zorigaitzoz.

Lehen galdeari ezin eman ihardespen labur baino labur-
rragoa baizik: zuk liburu bat ezagutzen duzu, eta nik ez nuen batere eza-
gutzen.


Inork ez du uste, aspaldidanik, hizkuntza horiek eta
euskarak zer ikusirik duten elgarrekin. Etorkiz bederen ez, horiek indo-
europeano edo direlako horietakoak baitira, argi eta garbi, India eta Irango
hizkuntzen ahaide hurbilago, latinaren edo grekoaren baino.

Ez dute, gainera, dakigunez, elgarrekiko har-emanik i-
zan euskaldunek, alde batetik, eta slavoek, bestetik.

Hemen bagenuen Rurik de Kotzebue zelako bat, orain Ma-
drilen bizi dena eta honek, bai, bera rusoa izaki, horrelako zerbait pentsa-
tzen zuen. Baina bere hizkuntza eta frantsesa hagitz ederki ezagutzeaz gain,
ez daki deus ere. Beti zioenez, gainera, miretsirik zegoen hemen, Espainia
osoan gutienez, izenetan slavoen hain kutsu garbia agertzen zelarik, nola ez
zuen inork, bera abiatu baino lehen, horrelakorik aipatu.

Beste galdeari dagokionez, Donostiara bidali dut, ea
argirik aurkitzen ote duten. Beldur naiz, nolana ere, ez dudala gauza gar-
birik eta segurik jakinen ni hara gabe.

Agertu berria den artikulutxo bat, behintzat, bidaltzen
dizut, ezku utsik geldu ez zaitezene. Nahi duzun arte, zure zerbitzuko,



25-4-1977.

Adiskide,

Erantzuteko gehiegi badut ere, ez nuke zureari hitz bi esan gabe gelditu nahi. Zer moduz gertatu ziren Madrillgoak?

Ni, erras ongi ez banabil ere; lehengo larrialdietarik iritena naiz eta badirudi aurrerera ere ez dudala beldur-bide handirik.

Altnarekin mintzatu naiz hemen, aditza dela-ta. Esan didanez, besteak beste, bi puntutan sortu zela eztabaida: -io-ri buruz eta eritzi-ri buruz. Hauzia zure eta neure eskutetan utzi omen ziguten.

Hona zer uste dudan, hausiaren gora-behera nagusiak behar zen bezain biribilki azaldu baldin badizkit.

Lehenik

Ene iritziak, diot, diotsa, eta abar sartu behar ditugu, klasikoei eta oraingo herriak erabilirik, osorik eta baina horiek bakanrik. Ez dut uste diot-en pluralaren premia gorrian gaudenik eta, nahiz Bizkaiak diotz (diotaz edo antzekorik) eta Donostian, inotz, diotziot, klaf sikoek erabilirik ez direnez gero, nik ez nituzke inolaz ere sartuko.

Horrek ez du esan nahi inori holakorik erabiltzea debekatzen diogunik: nahi duenak, erabil bitza. Baina gauza bat da ez debekatzea eta oso bestea agintzea edo, bedereak, konseilatzea. Hortan ez dator bat Berriatua eta Kintana-rekin: lehen ere gehiegi sartu dituzte inongo testuren lekukotasunik gabe, ez dakit ongi zertarako. Izugarri gisa, behar bada, euskal ikasleak izugarri.

Eritzi-rena, beste kontua da. *in (oman)-i buruz lehengo paperetan irakurtzen audanaren parekoa: "Bitara agertzen dira: idazu/indazu..." Hori, ordeak, ez da egia erdia balziki: lehen, antzina, ess teko meduan beti, eta eskualderik gehienetan gero, erabili diren neurrian indazu (baina iruk, etc.) agertzen da. Jarritte eta Iturray ez dira hor, horrelako gai batean, Leizarraga eta gainerako guztien parean jartzeko. Erregulartasunaren arrazoia beste bat da, lehengoarekin zer ikusirik ez duena.

Orobat, XVIII mendean beti eta non-nahi, XVII mendean beti edo gehienbat (hemen ez dut paperik, baina Axular ere hor sartzen da), gero ere bat (Errenterian behinbat) leku askotan eta belarriaz edo autoren onegian ikasi dutenen idazlanetan honela erabiltzen da: Iystrakoek Pauli, Iuppiter eritzi eta Barnabasi Merkurio, Honi nola deritzan? (hor baitek, jendeak, etc.), Nari derist (hots, derixt, ez baitzuen Mogelek x adierazteko bide zuzenik) Pern landetako, etc., etc. Usario hori da antzinakoa, jatorra antzinakoa delako, eta behar bada oraindik ere (hizlarien artean) zabalduena), eta ni horri lotuko natzate. Ez dut inor bortxatuko, baina besterik erabakiko balitz, ez dut neure izenik azpian ipiniko.

Lehengorri naxekala, euskara zaharrean (Bizkaietan izan ezik) deritste, zerizten, etc.) ageri dira: baita, oker ez badago, zure Axular, er hiztegian bertan ere. Horren kontra, ene ustez, gutti balio du zorioneko erregulartasunak.

dio diotso diost dioskr diosate
 dioz diotsoz diostaz diosaz diosatez
 diote diotse dioskr diosna diosmate
 diotez diotsez dioskruz diosnaz diosmatez
 diotso te diotso te diotso te diotso te
 diotsete diotsete diotsete diotsete
 diotsetez diotsetez dioskrutez diotsetez

E S A N

diot diotso t diotsogu diosat diosagu diotsut diotsugu
 diodaz diotsodaz diotsoguz diotsoguz diosaguz diotsudaz diotsuguz
 diogu diotset diotsegu diosnagu diosnagu diotsuet diotsuguz
 dioguz diotsedaz diotsegu diosnagu diosnagu diotsuedaz diotsueguz

diok diotsok diotsozu diostak diostazu
 diozak diotsozak diotsozuz diostazak diostazu
 dion diotsek diotsezu diostan diostazak diostazu
 dionaz diotsezak diotsezuz diostamaz diostazak diostazue
 diozu diotson diotsozue dioskruzak diostazue
 diozuz diotsonaz diotsozue dioskrutez diostazue
 diozue diotson diotseze dioskrumaz diostazue
 diozuez diotsenaz diotseze dioskrumaz diostazue

zioen ziotson ziosan ziosan ziosaten
 ziozen ziotsozen ziosazen ziosazen ziosatezen
 zioten ziotson ziosnan ziosnan ziosnatezen
 zioezen ziotseten ziosnazen ziosnazen ziosnatezen
 ziotseten ziotseten zioskrutez zioskrutez ziotsetezen

nioen niotsn geniotson niosan geniosan niotsun geniotson
 niozen niotsozen geniotsozen niosazen geniosazen niotsuzen geniotsozen
 genioen niotsen geniotson niosnan geniosnan niotsuen geniotsozen
 geniozen niotsezen geniotseten niosnazen geniosnazen niotsuezen geniotsetezen

hioen hiotsn zeniotsn zeniotsan zeniostaten
 hiozen hiotsozen zeniotsozen zeniotsazen zeniostatezen
 zenioen hiotseten zeniotsen zeniotsueten zeniostaten
 zeniozen hiotsezen zeniotsuzen zeniotsutez zeniostatezen
 zenioten hiostan zeniostan zeniostatez zeniostatezen
 zenioetezen hiostazen zeniostazen zeniostatez zeniostatezen
 hiostan hiostan zeniostan zeniostatez zeniostatezen
 hiostazun zeniostazun zeniostatez zeniostatezen
 hiostakuzen zeniostakuzen zeniostatez zeniostatezen

bio biotso biost biostate biotsu biosk
 bioz biotsoz biostaz biostat biotsuz biosaz
 biote biotse biostak biostate biotsue biosna
 biotez biotsez biostakuz biostatez bioskrutez biosnaz